# GUERRILLA GIRLS 1985–2013

## EUSKERA

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK
MEDIOS COLABORADORES

EL CORREO

CADENA SER

ARTEA ETA KULTURA
ARTE Y CULTURA

Alhóndiga Bilbao

Kultura Bizi Den Tokia
Donde Vive la Cultura

www.alhondigabilbao.com




**GUERRILLA GIRLS-EN ARTE MUSEOETARAKO KODE ETIKOA**

**I.** Ez zara aldi berean izango museo bateko Nagusia eta enkante-etxe nagusi bateko Akzio-gehiengoduna.

**II.** Komisario batek ez du Artista baten lanik ikusgai jarriko, berarekin sexu-harremanak izan baditu. Era berean, ez du jarriko beren Galeria-jabearekin sexu-harremanak izan dituzten Artisten lanik, harreman horiek hormako etiketa batean, ikusgai dagoen artelanetik 8 hazbetera, esplizituki erakusten direnean izan ezik.

**III.** Ez duzu Artista baten hiru atzera begirako erakusketa baino gehiago antolatuko, haren Galeria-jabea Komisarioburuaren anaia bada.

**IV.** Ez diezu Batzordea mugatuko zuzendari korporatiboei, enpresaburu aberatsei edo parasito sozialei. Gutxienez, %0,001 bideratuko diezu AEBetako biztanleriako arraza- eta genero-proportzioak irudikatzen dituzten artistei.

**V.** Ez duzu onartuko enpresek beren irudi publikoa museoetan garbitu dezaten, beren hondakin toxikoen zabortegiak ezabatu eta petrolio-isuriak garbitu arte.

VI. Hileta bikainak eskainiko dizkiezu hil ondoren erakusgai izan nahi dituzun Emakume Artistei eta Artista Beltzei.

**VII.** Arte-bildumazalea bazara eta Erakusketetarako Erosketen Batzordean bazaude, ez duzu urtean behin baino gehiagotan zure eragina erabiliko zure bildumaren balioa handitzeko.

**VIII.** Emakumeei eta beltzei zuzendutako produktuen bidez diru-sarrerak eskuratu dituzten Enpresa Ongileek talde horien artelanak erakustera eta eskuratzera bideratuko dituzte museoei egiten dizkieten dohaintzak.

IX. Komisarioei emango diezun soldata hain izango da urria, non aberatsak izan beharko dute berez, edo prest egon beharko dute informazio pribilegiatuaren salerosketan aritzeko.

**X.** Jendaurrean onartuko duzu jeinua, maisulana, seminala, indartsua, gogorra, kementsua eta boteretsua bezalako hitzak mitoari eusteko, eta azal zuriko gizon artisten merkatuko balioa puzteko baizik ez direla erabiltzen.

**ZEIN ANTZEKOTASUN DUTE ARTISTA HAUEK?**
Onartzen dute beren lanak ikusgai jartzea emakumeen lanak %10 baino gutxiago diren edo emakumeen lan bat ere ez duten galerietan.




**GALERIA HAUETAN ERAKUSGAI DITUZTEN OBREN ARTEAN, EMAKUME ARTISTEN ARTELANAK %10 BAINO GUTXIAGO DIRA, EDO BAT ERE EZ DAGO**




**ZENBAT EMAKUMEK EGIN DITUZTE BANAKAKO ERAKUSKETAK NEW YORKEKO MUSEOETAN AZKEN URTE HONETAN?**






**KRITIKARI HAUEK EZ DUTE ASKI IDAZTEN EMAKUME ARTISTEI BURUZ**

1979. eta 1985. urteen artean, kritikari hauek banakako erakusketei buruz idatzitako artikuluen eta azterketa monografikoen %20 baino gutxiago ziren emakumeek egindako artelanari buruzkoak. Izartxoz markatutako kritikariek %10 baino gutxiago idatzi zuten emakumeek sortutako arteari buruz, edo ez zuten inoiz idatzi.




**JOHN RUSSELLEN USTEZ, KONTUAK HOBETZEN ARI DIRA EMAKUME ARTISTEI DAGOKIENEZ. GUERRILLA GIRLS-EN IRITZIZ, RUSSELLEK BERE EGUNKARIA IRAKURRI BEHARKO LUKE**




**AEBETAKO EMAKUMEEK GIZONEK IRABAZTEN DUTENAREN 2/3 BAIZIK EZ DUTE IRABAZTEN. EMAKUME ARTISTEK GIZONEK IRABAZTEN DUTENAREN 1/3 BAINO EZ DUTE IRABAZTEN**

**EUROPAN ARE OKERRAGOA DA EGOERA**




Arte-bildumazale kutuna:
Jakinarazi digutenez, zure bildumak, bilduma gehienek bezala, ez du emakumeek sortutako behar adina arte-lan. Ondotxo dakigu oso gaizki sentitzen zarela horrela, eta berehala zuzenduko duzula egoera. Bihotz-bihotzez, Guerrilla Girls




**EZKUTUKO GENERO-AGENDA: GAU BAT ARTE-KRITIKARIEKIN**
**ARDURAK SAIHESTEN: GAU BAT ARTE-SALEROSLEEKIN**






**GUERRILLA GIRLS-EN 1986KO KALIFIKAZIOAK**

Emakume artistak galerietan 19851986, 19861987

| | |
|---|---|
| Blum Helman | Ez du hobera egiten |
| Mary Boone | Mutilekin zoratuta |
| Grace Borgenicht | Ez du ekimenik |
| Diane Brown | Hobeto egin lezake |
| Leo Castelli | Ez du arretarik jartzen |
| Charles Cowles | Gehiago lan egin behar du |
| Marisa del Rey | Ez du aurrera egiten |
| Allan Frumkin | Ez ditu oharrak betetzen |
| Marian Goodman | Saiatzen da |
| Pat Hearn | Urratzailea |
| Marlbourough | Ez da nahikoa |
| Oil & Steel | Etekin urria |
| Pace | Ahal duena baino gutxiago egiten du |
| Tony Shafrazi | Oraindik ez da aski |
| Sperone Westwater | Barkaezina |
| Edward Thorp | Bikain ari da aurrera egiten |
| Washburn | Onartezina |




**NEW YORKEKO 4 GALERIA KOMERTZIALEK BAIZIK EZ DITUZTE IKUSGAI EMAKUME BELTZEN ARTELANAK*. HAIETATIK, 1EK BAINO EZ DITU IKUSGAI EMAKUME BELTZ 1EN BAINO GEHIAGOREN LANAK****




**ZEIN IZAN DA EMAKUMEENTZAKO ARTE-ALDIZKARIRIK OKERRENA IAZ?**

Emakume artisten banakako erakusketei buruzko artikulu monografikoen eta kritiken ehunekoa, 1985eko iraila - 1986ko uda.

**ZER DA MODAN DAGOENA, OSPEA EMATEN DUENA ETA ZERGAK ARINTZEN DITUENA?**
**EMAKUMEAK ETA ZURIAK EZ DIREN ARTISTAK DISKRIMINATZEA**

Enpresa eta fundazio hauek babestu zituzten… erakusketa hauek… eta hauek izan ziren gizon artisten eta artista zurien ehunekoak…



WHAT'S FASHIONABLE, PRESTIGIOUS & TAX DEDUCTIBLE?

DISCRIMINATING AGAINST WOMEN AND NON-WHITE ARTISTS.

| THESE CORPAORATIONS & FOUNDATIONS SPONSORED... | THESE EXHIBITIONS... | CONTAINING THESE PERCENTAGES: |
|---|---|---|
| Owen Cheatham Foubndation; The National Endowment for the Arts (NEA) | "Transformations in Sculpture: Four Decades" 1985. Guggenheim Museum. Diane Waldman, curator | 95% men 96% white |
| Exxon; Grand Marnier Foundation; Enichem Americus, Inc; the NEA | "Emerging Artists 1978-1986: Selection from the Exxon Series" 1987. Guggenheim Museum. Diane Waldman, curator | 75% men 98% white |
| McGraw-Hill Foundation | "Printed Art: A View of Two Decades: 1980. The Museum of Modern Art. Riva Castleman, curator | 95% men 96% white |
| The New York State Council on the Arts; the NEA | "Monumental Drawings: Works by Twenty-two Americans" 1986. Brooklyn Museum. Charlotta Kotik, curator | 94% men 93% white |
| A.T.&T; the NEA | "International Survey of Recent Painting and Sculpture" 1984. The Museum of Modern Art. Kynaston McShine, curator | 82% men 98% white |
| Phillip Morris Companies, Deutsche Bank; Bohen Foundation; The Federal Republic of Germany; the NEA | "BerlinArt 1961-1987" 1987. The Museum of Modern Art. Kynaston McShine, curator | 95% men 100% white |
| Kaufman Foundation; Lauder Fund; Lipman Foundation; Rose Foundation | "Blam! The Explosion of Pop, Minimalism and Performance 1958-1964" 1984. Whitney Museum. Barbara Haskell, curator | 85% men 91% white |
| Chase Manhattan Bank; the NEA | "High Styles: Twentieth Century American Design" 1986. Whitney Museum. Lisa Phillips, curator | 87% men 97% white |

Please send $ and comments to: Box 1056 Cooper Sta. NY, NY 10276 GUERRILLA GIRLS CONSCIENCE OF THE ART WORLD

**GUERRILLA GIRLS WHITNEY IKUSKATZEN**




**OGI ZURIA SALTZEN DUGU**

Osagaiak: Gizon zuriak, lurrintzaile artifizialak, kontserbagarriak.

Egunean behar den emakume zurien eta zuriak ez diren pertsonen gutxieneko kopurua baino gutxiago du.






## EMAKUME ARTISTA IZATEAREN ABANTAILAK

Arrakasta izateko presiorik gabe lan egitea.
Erakusketetan gizonekin batera agertu behar ez izatea.
Autonomo gisa 4 lan egin ondoren artearen munduarekiko harremanak eten ahal izatea.
Zure lan-ibilbidea laurogei urte bete ondoren goraka has daitekeela jakitea.
Egiten duzun artea edozein motatakoa izanda ere, beti lan femenino gisa sailkatuko dela bermatuta izatea.
Irakaskuntzako lanpostu finko batean harrapatuta ez geratzea.
Zure ideiak besteen lanetan betikotzen direla ikustea.
Lan-ibilbidearen eta amatasunaren arteko hautua egiteko aukera izatea.
Puru erraldoi horiekin erdi itota, eta janzki italiarrez atonduta ibili behar ez izatea.
Lanerako denbora gehiago izatea, zure bikotekideak gazteagoa den norbaitengatik uzten zaituenean.
Artearen historiako bertsio orraztuetan sar zaitzatela.
Jenioa deitzen dizutenean izaten den lotsa sentitu behar ez izatea.
Arte-aldizkarietan gorilaz mozorrotuta agertzea.




## AZKENEAN! MUSEOEK EZ DITUZTE GEHIAGO DISKRIMINATUKO EMAKUME ARTISTAK ETA ARTISTA MINORITARIOAK*

Eskubide Zibilak berrezartzeari buruzko 1988ko Legearen arabera, funts federalak ukatuko zaizkie bereizkeriazko jarduerak egiten dituzten instituzio guztiei. Emakume artistei eta artista beltzei dei egiten diegu beren museo gogokoenarekin harremanetan jar daitezen. Zuen premia dute eta!

**GALDERA: EMAKUME ARTISTEK EGINDAKO ZENBAT ARTELAN HARTU ZUTEN BARNE ANDY WARHOLEN ETA TREMAINEREN SOTHEBY'S-EKO ENKANTEETAN? ERANTZUNA: 0**




---

**NEW YORKEN AUTOBUS-KONPAINIAK ARTE-GALERIAK BAINO AURRERAKOIAGOAK DIRA**

Emakumeen ehunekoa, honako lanpostu hauetan:
Autobus-gidariak
Saltzaileak
Zuzendariak
Postariak
New Yorkeko 33 galeria nagusietan ordezkaritza duten artistak
Kamioi-gidariak
Soldatzaileak




---

**GURE GALERIAK ANIMATU DITUGU EMAKUMEEN ETA ARTISTA BELTZEN ARTELAN GEHIAGO ERAKUTS DEZATEN. ETA ZUEK?**
(azal zuriko gizon artista ospetsuen zerrenda)






**EMAKUMEEK BILUZIK EGON BEHAR AL DUTE METERA SARTU AHAL IZATEKO?**

Arte modernoari eskainitako ataletan agertzen diren artisten %5 baino gutxiago dira emakumeak, eta, hala ere, irudi biluzien %85ek erakusten du emakumeen gorputza.




**ARRAZAKERIA ETA SEXISMOA MODAN EZ DAUDENEAN, ZER BALIO IZANGO DU ZUEN ARTE-BILDUMAK?**

Artearen merkatuak ez ditu beti horrelako prezio handiak ordainduko gizon zuri gutxi batzuen artelanaren truke. Jasper Johns-en margolan bakar batean xahutu dituzuen 17,7 milioi dolar horiekin, gutxienez, emakume eta artista beltz hauen obra bana eros zenezaketen.




**IRUDIAREN ERDIA BAINO GUTXIAGO IKUSTEN ARI ZARA**

Emakume artisten eta artista beltzen ikuskizuna falta da

**LASAI, HELMS SENATARI, ARTEAREN MUNDUA DA TOKIRIK EGOKIENA ZURETZAT!**




• Arte-inaugurazioetan izaten diren pertsona beltzen kopurua, gutxi gorabehera, zure lorategian antolatzen dituzun jaietan izaten den horixe bera da.
• Museoetako nagusi asko Ronald Lauder bezain kontserbadoreak dira behintzat.
• Kontuan izanik kalitate estetikoa nagusitzen dela ororen gainetik, museoetan eta arte-galerietan sekula ez da bereizkeria positiboko ekintzen premiarik izan.
• Arte-bildumazale gehienak eta arrakasta duten artista gehienak gizon zuriak dira.
• Emakume artistek badute beren lekua. Azken batean, gizon artistek irabazten dutena baino 1/3 baino gutxiago irabazten dute.
• Museoek “bereiz baina berdinak” oinarria betetzen dute. 1973az geroztik, ez da emakume pintore edo eskultore beltzik izan Whitneyko Bienalean. Aitzitik, badute aukera beren artelanak erakusteko Harlemeko Studio Museumen edo Washingtongo Women’s Museumen (Emakumeen Museoan).
• Artearen esparruan, emakume artista gehienek ez dute beren artelanen bidez bizimodua ateratzen, ez dago amatasun-bajarik, ez eta diruz lagundutako haurtzaindegirik ere; hala, beraz, emakumeek oso gutxitan bateratu ditzakete beren lan-ibilbidea eta amatasuna.
• Begirune gehiagoz hartzen diren artelanetako irudi sexualak gizon osasuntsuen eta heterosexualen adierazpena dira.
• Gobernuaren inolako esku-hartzerik gabe, artea da arautu gabe dagoen azken merkatuetako bat. Zergatik ez dago autorregulazio-motaren bat?
• Museoetan ikusgai dauden zakil gehienak Jesus Haurrarenak dira.

---

**HONA HEMEN GUERRILLA GIRLS-EN IZENAK!**




“Prest gaude artearen munduan dagoen bereizkeriari aurre egiteko. Geu gara Guerrilla Girls”.
(emakume artisten zerrenda)




**GUERRILLA GIRLS-EN USTEKABEKO AZTERKETA**

Galdera: Otsaila afroamerikarren historiaren hilabetea bada, eta martxoa, berriz, emakumearen historiaren hilabetea, orduan, zer gertatuko da urteko gainerako hilabeteetan?
Erantzuna: Bereizkeria.

---




**HIPOKRITAREN DEFINIZIOA GUERRILLA GIRLS-EN ARABERA**
Ideal liberalei laguntza emateko ongintzako ekitaldietan gizon zurien artea erosten duen arte-bildumazalea, emakumeen edo artista beltzen artea sekula ere erosten ez duena.

---




**MONTGOMERY, ALABAMA, 1955?**
**EZ, SAUDI ARABIA, 1991**

Autobus publikoen atzealdean bidaiatu beharko dute.
Debekatuta izango dute saltoki jakin batzuetan sartzea*.
*A Soldier's Field Guide to Saudi Arabia gidan (Saudi Arabian dauden soldaduentzako gidaliburua) emakume soldaduei emandako gomendioa, 1990.

**BORROKAN DESAGERTUAK**

Osasun Zerbitzu Nazionala
Pobreziarik eta etxerik gabeko pertsonarik ez egotea
Bereizkeria gehiagorik ez
HIESaren sendabidea
Haur-laguntza eta -hezkuntza guztiontzat
Ugaltzeko eskubideak emakume guztientzat
Ingurune segurua
Hautabidezko politika energetikoa




**HONA HEMEN NEW YORKEN AURREIRITZI GEHIEN DUTEN GALERIAK**

Zergatik? Hauek direlako emakumeen eta artista beltzen artelan gutxien erakusten dutenak.
Galeria... Emakumeen kopurua 1989-1990… Artista beltzen kopurua 1989-1990.



THESE ARE THE MOST BIGOTED GALLERIES IN NEW YORK.

Why? Because they show the fewest women & artists of color.

| GALLERY | No. of women 1989-90 | Artists of Color 89-90 |
|---|---|---|
| Blum Helman | 2 | 0 |
| Diane Brown | 3 | 1 |
| Leo Castelli | 0 | 0 |
| Charles Cowles | 3 | 1 |
| Larry Gagosian | 0 | 0 |
| Gemini G.E.L. | 2 | 1 |
| Marian Goodman | 2 | 0 |
| Jay Gorney | 2 | * |
| Hirschl & Adler Modern | 1 | 0 |
| Kent | 1 | 0 |
| Knoedler | 1 | 0 |
| Koury Wingate | 1 | 0 |
| David McKee | 1 | 0 |
| Pace | 3 | 1 |
| Tony Shafrazi | 0 | 1 |
| Holly Solomon | 3 | 1 |
| Sperone Westwater | 1 | 1 |
| Stux | 0 | 1 |

Source: *Art In America Annual* 1990-91 *Tim Rollins and K.O.S.

Please send $ and comments to: Box 237, 496 LaGuardia Pl, NY 10012 GUERRILLA GIRLS CONSCIENCE OF THE ART WORLD

**GALDERA: ZER DESBERDINTASUN DAGO GERRAKO PRESO BATEN ETA ETXERIK GABEKO PERTSONA BATEN ARTEAN?**
**ERANTZUNA: GENEVAKO HITZARMENAREN ARABERA, GERRAKO PRESOAK ESKUBIDEA DU ELIKADURA, OSTATUA ETA OSASUN-LAGUNTZA JASOTZEKO.**






### ZER NAHI DUDAN AMAREN EGUNERAKO

“Ez dut gozokirik nahi. Ez dut lorerik nahi. Alokairuko etxebizitza bat eta giltzak nahi ditut” – etxerik gabeko pertsonentzako New Yorkeko ostatu bateko egoiliarra.




### GUERRILLA GIRLS-EK ESKATZEN DUTE ABORTUARI BURUZKO BALIO TRADIZIONALETARA ITZULTZEKO

XIX. mendearen erdialdera arte, abortua legezkoa zen haurdunaldiaren lehenengo hilabeteetan. Izan ere, Eliza Katolikoak ez zuen debekatu 1869. urtera arte.




### ERREPUBLIKANOEN USTEZ, EMAKUMEAK ESKUBIDEA DU BERE GORPUTZARI BURUZ ERABAKITZEKO

Ilea tindatua eta makillajea, errinoplastia, aurpegiko liftingak, liposukzioa, bularretako inplanteak, anorexia eta bulimia, bendaz lotutako oinak, klitoriaren ablazioa.

**BORTXATZEN BAZAITUZTE, “LASAITU ETA GOZA EZAZU", INORK EZ BAITIZU SINETSIKO**

Zenbatespenen arabera, 1988an, AEBetan 185.000 bortxaketa izan ziren, baina, horren ondorioz, 39.160 lagun baizik ez zuten atxilotu, eta horietatik 15.700 lagunek baino ez zuten zigorra jaso.




**ZENBAT DENBORA BEHAR IZAN ZEN LOS ANGELESKO HEGOALDEA ARPILATZEKO?**

81 segundo, Rodney Kingi emandako jipoiaren bideo-grabazioaren iraupena.
72 ordu, Los Angelesko istiluen iraupena.
12 urte, Reagan-Bush administrazioen iraupena.




**GUGGENHEIMENEN, ZER BERRI ARTEAREN ZALERIK ZORROTZENENTZAT?**

Betiko ismoak: arrazismoa, sexismoa, klasismoa, adinaren araberako bereizkeria, eurozentrismoa, nepotismoa, elitismoa, falozentrismoa. Zorionak Guerrilla Girls-en partetik. Jantzi mozorroa, eta egin bat gurekin!






## AUZITEGI GORENAK GAY ETA LESBIANEN PRIBATUTASUN-ESKUBIDEA BABESTEN DU

Clarence Thomasek aldarrikatzen du pertsona baten bizitza sexuala ez dela Gobernuaren kontua. “Ez naiz hasiko nire bizitza pribatuko barruko kontuak edo nire logelako santutasunean gertatzen dena esaten. Nire pribatutasunaren atal intimoenak dira, eta halaxe izango dira aurrerantzean ere”.




## HORMONA-DESOREKA. MELANINA GABEZIA




## ARTEAGIZONARENTZAT

Aldizkariaren argitaratzaileak eta urteak
Aldizkarien azaletan eta artikulu monografikoetan agertutako gizon zurien, emakume zurien, gizon beltzen eta emakume beltzen ehunekoak.

**THE TOKEN TIMES (ESTEREOTIPOEN GARAIAK):**



THE Token Times

CLASSIFIED

HELP WANTED, ART WORLD

**OUTSTANDING CAREER OPPORTUNITY: CURATORIAL ASST TO ASST-CURATOR AT MAJOR MUSEUM. ENTRY LEVEL POSITION.**
Ph.D from Top School, publications & 10 years experience required.
Must know Word Processing, answer own phone, conduct own research.
Possibility of curating shows at branch museum, providing you can raise the money. EOE; Women and minorities encouraged to apply.

**WELL-DRESSED ART HISTORY MAJOR?**
Blue chip NYC art gallery, wanting to change male, pale image; seeks multicultural receptionist with drop-dead appear. & clothes to match; ivy league education & attitude a must; NO ETHNIC ACCENTS. Minimum wage, no health insurance. Fringe benefits include: attending fancy parties and meeting the right people.

**$$$$$$$$$SMILE$$$$$$$$$$$**
**DEVELOPMENT ASSISTANT:** person of color needed to intimidate foundations, corporations, and collectors into giving large amounts of money. Successful candidate must relish being only minority staff member. High visibility in public, silence at staff meetings required. Photogenic a plus.

**EARN A GREAT P/T INCOME !!!!**
**MAJOR MUSEUM** seeks 1 artist of color EVERY year for next five years (or as long as multicult. lasts) for solo shows. Prefer artist already discovered by major galleries, collectors and other museums. Must restrict artistic output to ethnic issues: FORMALIST NEED NOT APPLY.

**GRAND OPENING! ARTIST CALL!**
Female African-American, Latina, Asian or Lesbian artists wanted for large summer group show in out of the way location.
No honorarium, no sales.
Must deliver own work.

A PUBLIC SERVICE MESSAGE FROM GUERRILLA GIRLS CONSCIENCE OF THE ARTWORLD
532 LaGUARDIA PLACE, #237 • NY, NY 10012

Laguntza behar da, Artearen mundua
Lan aukera aparta:
Museo garrantzitsu bateko komisario laguntzailearen komisario laguntzailea. Hasiberriaren lanpostua. Eskakizunak: unibertsitate ospetsu batek emandako Doktorego-titulua, argitalpenak eta 10 urteko esperientzia. Testuak prozesatzeko ezagutzak eduki behar ditu, bere telefonoan jasotako deiei erantzun beharko die, eta bere ikerketak egin beharko ditu. Museoaren filial batean erakusketen komisario gisa lan egiteko aukera izango du, betiere, finantziazioa bere kabuz lortzen badu, dena berdintasuneko lan-baldintzetan. Aurkezteko dei berezia egiten zaie emakumeei eta gutxiengoei.

Artearen Historiako ongi jantzitako lizentziaduna zara? Maila goreneko arte-galeria batek bere irudi maskulinoa eta makala aldatu nahi du. Harreragile multikulturala bilatzen du, primerako itxurakoa eta jantzi zoragarriz atondua; ezinbestekoa da Ivy League-ren unibertsitatetako batean ikasketak egin izana eta aldez aurreko jarrera ona izatea. Azentu etnikorik gabea. Gutxieneko soldata, osasun-asegururik gabe. Etekin gehigarriak: jai dotoreetara joatea eta pertsona egokiak ezagutzea.

EGON IRRIBARRET$$$U
Garapeneko laguntzailea: pertsona beltza behar da, fundazioak, enpresak eta bildumazaleak limurtzeko, eta dirutza handia eman dezaten lortzeko. Aukeratutako hautagaiak gutxiengo bateko enplegatua izatearekin etsi beharko du. Jendaurrean nabarmen ikusteko eran egongo da; langileen batzarretan hitz egiteko eskubiderik ez. Komenigarria da argazkietan ongi ematea.

Irabazi dirutza, lanaldi partzialean arituz
Museo garrantzitsu batek artista beltz bat behar du urtero, datozen 5 urteetan (edo kulturaniztasunak irauten duen bitartean), banakako erakusketak egiteko. Ahal dela, galeria nagusiek, bildumazaleek eta beste museo batzuek ezagutuko dute. Ekoizpen artistikoa gai etnikoetara mugatu beharko du: puristarik ez.

Inaugurazio handia! Artistentzako deialdia!
Emakume artista afroamerikarrak, latinoak, asiarrak edo lesbianak behar dira taldekako erakusketa handiak egiteko udan, toki urrunen batean. Ordainsaririk gabe, salmentarik gabe. Beren lana eskaini beharko dute.




## BALIO TRADIZIONALAK ETA KALITATEA BERRIRO ERE WHITNEY MUSEOAN

Bienaletan dauden artistak:
1991: %4,4 emakume beltz, %5,9 gizon beltz, %29,4 emakume zuri, %60,3 gizon zuri
1993: %11,4 emakume beltz, %22,7 gizon beltz, %29,5 emakume zuri, %36,4 gizon zuri
1995: %5,5 emakume beltz, %11,1 gizon beltz, %27,7 emakume zuri, %55,5 gizon zuri




## ARTEAREN MUNDUAN ZURIGARRI BAT BAIZIK EZ ZARELA ERAKUSTEN DUTEN LEHEN HAMAR ZANTZUAK

10. Hilabete hauetan duzu lan gehien: otsaila (afroamerikarren historiaren hilabetea), martxoa (emakumeen historiaren hilabetea), apirila (kontzientziazio asiar-amerikarra), ekaina (Stonewalleko urteurrena) eta iraila (oinordetza latinoa).
9. Inaugurazio-ospakizunetan eta jaietan, zutaz aparte, edariak zerbitzatzen dituztenak dira beltz diren pertsona bakarrak.
8. Nahiz eta ez ezagutu zure artelana, jende guztiak daki zein diren zure arraza, generoa eta sexu-joerak.
7. Zure artelanak erakusten ez dituen museo batek tarte nabarmena eskaintzen dizu bere hitzaldi-zikloan.
6. Zure azken erakusketari hots handia eman diote, baina esku dirurik ez.
5. Ekialdeko itsasaldeko arte-eskola guztietarako irakaslelanpostu ez-iraunkor baterako finalista zara.
4. Ez dago zure artelan bat baino gehiago erosiko duen bildumazalerik.
3. Ahoa zabaltzen duzunean, jakintzat ematen da "zuretarren" izenean hitz egiten duzula.
2. Jendeak beti kontatzen dizkizu bere ameskeria homosexualak eta arraza artekoak.
1. Lehen ordu bat ere eskaintzen ez zizun komisario batek Guerrilla Girls-en manifestazio bat amaitu orduko deitu dizu.

**NOR DA IZAKI LERDETSU HAU? NEWT (GINGRICH) DA, UHANDREA!**




Amak hazi zuen, aita inondik agertu gabe, baina umezurtz egietan sartu nahi ditu aitarik ez duten haurrak.
Marihuana erretzen zuen unibertsitatean, baina zigor gogorragoak eskatzen ditu droga kontsumitzeagatik.
Intsumisoa izan zen, baina gastu militarra areagotu nahi du.
Direnak eta ez direnak esaten ditu gobernuaren ustelkeriari buruz, baina 4,5 milioi dolarren aurrerakina/eroskeria onartu zion Kongresua ikertzen ari den enpresa bati, liburu baten truke.
Lehen emaztearengandik dibortziatu zen, hura minbiziak jota ospitalean zegoen bitartean, eta aita galtzaundi bat da, baina "balio tradizionalak" babesten ditu.

---

**INGURUMENARI BURUZKO HAMAR ZABOR-IDEIA**




- Pikutara ziklo naturalak. Ez luiziek, ez basoko suteek, ez lurrikarek, ez dute eragotziko nire ametsetako etxea eraikitzea nahi dudan tokian.
- Ibaietara eta itsasora zaborra botatzea nazkagarria da, baina, tira! "Begi itsuak, negarrik ez".
- Zer erru dut nik, haizeak beste estatu edo herrialde batera eramaten badu nire lantegiak eragindako kutsadura?
- Hobe da ia desagertuta dauden industriak salbatzea, galtzeko bidean dauden animaliak salbatzea baino.
- Soropilak, azken punturaino zaindutako parkeak eta golf-zelaiak hain ederrak direnez, merezi du horiek mantentzeko behar den ur guztia xahutzea eta erabili beharreko pestizidak erabiltzea.
- Pertsonei edo haien jabetzei erasotzen dieten animaliek ez dute tokirik gure parke nazionaletan, ez eta etxaldeetan ere. Sar ditzagun zoologikoetan edo diseka ditzagun.
- Nire beheko sua oso erosoa da; ondo sentiarazten nau. Garrantzizkoagoa da nire osasun psikikoa airearen kalitatea baino.
- Badakit behin erabili eta botatzeko pixoihalak erabiltzea xahutzea dela, baina niri bost.
- Zoratzen nau nire autoak eskaintzen didan pribatutasunak eta erosotasunak, eta ez diot horri uko egingo. Gainera, nola egingo dut bizarra edo nola makillatuko naiz, garraio publikoan banoa?
- Gustatzen zait plastikoa erabiltzea, batez ere ingurumenari buruzko artea egiteko. Azken batean, artea betikoa da, plastikoa bezala.




## ORAIN ARTE, INTERNET %84,5 GIZONENA ZEN ETA %82,3 ZURIENA

Guerrilla Girls kolektibokoek sarea inbaditu dugu. Egin bat gurekin.




## NOLA GOZATU SEXUEN ARTEKO GERRAZ, THE NEW YORKER-ERAKO PROIEKTUA

Guerrilla Girls-ek emakumeei emandako gomendio onuragarriak

- Gozatu zure gorputzarekin duzun lotura berezi horretaz: Mutil bat bere onetik ateratzen bada, horrek ez du zerikusirik bere zakilarekin; zu zure onetik ateratzen bazara, berriz, menstruazio aurreko sindromea duzu (estatistikak)
- Ez atsekabetu lan egin edo seme-alabekin etxean gelditzearen artean erabaki behar baduzu: edozer eginda ere, errudun sentituko zara (estatistikak)
- Poztu zaitez zure lankideak lotsarazi behar ez izateaz, txiste gordinak kontatzen eta haiei ipurdia ukitzen (estatistikak)
- Atera kafea irribarre batez, gizon zuriak Washingtonera joaten direnean beren erruak ordaintzeko egunean (estatistikak)
- Ez izan beldurrik gailurrean bakarrik egoteaz, inoiz ez baitzara haraino iritsiko (estatistikak)
- Gozatu berrogeita hamar urte bete ondoren, zure itxura inori axola ez zaionean, arropetan eta kosmetikoetan aurreztuko duzun diruaz (estatistikak)
- Eskatu abortatzeko klinikei boikota egiten dieten gizonek aita nagi eta galtzaundiak ere jazar ditzaten (estatistikak)
- Lasaitu zaitez. Aurki, gizon zuriek bereizkeria positiboko ekintzak beharko dituzte lanpostu onak lortzeko
- Egon zaitez harro. Orain hobe da borrokan heriotza duina izatea, bortxatuta eta lapurtua izatea baino (estatistika)

### BROADWAYN TRAGEDIA BAT DAGO ETA EZ DA ELEKTRA

Emakumeek Broadwayko antzezlanen %8 baizik ez dute idatzi, eta, musikalei dagokionez, kopurua %1 baino gutxiago da. Guerrilla Girls-en ustez, tragedia greko bat baino tristeagoa da hori. Hitz bakar batek azal dezake gaur egun agertokietan gertatzen ari dena: bereizkeria




### BROOKLYNGO MONUMENTU ENBLEMATIKOA ESKURAGARRI BEREHALA!

New York hiriak erakunde berri bat nahi du, mende bete baino gehiago duen museo lotsagarria ordezkatzeko. Erkidegoaren balioak goretsi beharko ditu (balio kontserbadoreak, zuriak eta kristauak). Horrez gain, erantzukizun hauek izango ditu: uko egingo dio alkatea irain lezakeen ezer erakusteari, eta, alkatea senatari bihurtuz gero, uko egingo dio senataria irain lezakeen ezer erakusteari. Onartu beharko du jokabide iraingarriak komisarian baizik ez direla onargarri eta ezin direla museoetako hormetan irudikatu!




### GUERRILLA GIRLS-EK ATZEMANA

Hartzailea: Rudolph Guliani, New Yorkeko alkatea
Igorlea: Charles Saatchi, super kontserbadorea, Erresuma Batua
Rudi, lagun zaharra, Sensation erakusketarako dugun proiektua egundoko arrakasta izaten ari da. Zuk behar zenuen publizitate-kanpaina duzu, eta nire arte-bildumak lehen baino milioi gehiago balio du orain. Aizu, benetan ari naiz, hauteskundeetan zure kanpainarako telebista-iragarkiak doan egiteko eskaintzarekin. Gogoratzen duzu zer emaitza onak izan zituzten Maggie Thatcherrentzat egin nituen iragarkiek? Eta Hegoafrikako politiko zuri horientzat ere gauza zoragarriak egin nituen, agintean egon ziren bitartean! Pentsa ezazu… hildako marrazoa berpiztu, eta zure aurpegia jarriko diogu. Itsasoak zeharkatzen dabilela, burua erauziko dio arkumeari, eta hara non agertuko den hauteskundeetan aurrez aurre duzun urdanga hori. Edo baliteke komuneko butxadura kentzeko gailua hartzea…






### 3 EMAKUME ZURI, EMAKUME BELTZ 1 ETA GIZON BELTZIK EZ, 71 ARTISTAREN ARTEAN?

Margit Rowell andre begikoa, MoMAko Marrazki Saileko komisarioburua: Liluratuta gaude ikusita nola lortu duzun natura hilaren definizio berria ezartzea, emakumeak eta artista beltzak bazter utzita. Beharbada, izenburua aldatu beharko zenioke zure erakusketari, eta “Desiraren xedeak: natura hil modernoa” izenburuaren ordez, hau jarri beharko zenuke: “MoMAren desiraren xedeak gizon zuriak dira oraindik ere”. Zorte on, Guerrilla Girls




### THE BIRTH OF FEMINISM (FEMINISMOAREN JAIOTZA) FILMEKO POSTERRA

Hollywoodeko zinema-estudio garrantzitsu batek The Birth of Feminism (Feminismoaren jaiotza) filma aurkeztu du. Berdintasuna, orain! Emakumeen eskubideek itxura erakargarria izatea lortu dute. Oso erakargarriak.




### ANATOMIKOKI ZUZENA DEN OSKARRAREN IRUDIA

Zuria eta gizonezkoa da, bera irabazten duten mutilak bezala.
Zuzendari onenaren saria inoiz ez zaio eman emakume bati.
Gidoi onenerako sarien %92,8 gizonei eman zaie.
Antzezpen onenerako sarien %5,5 baino ez zaie eman beltzei.

**IRAGARKI-PANELA: AEBETAKO SENATUA BERA HOLLYWOOD BAINO AURRERAKOIAGOA DA**

Emakume senatariak: %14
Emakume film-zuzendariak: %4




**EMAKUMEENTZAKO ALERTA TERRORISTAKO AEBETAKO SISTEMA NAZIONALA** (apalenetik hasita)

Apala. Presidentea zaldiz ibiltzen da, etxaldeko sastrakak kentzen ditu

Neurrizkoa. Presidenteak FDArako (Sendagaiak Kontrolatzeko Erakunderako) izendatu duen gizonaren ustez, otoitz egitea da sendabiderik onena menstruazio aurreko sindromeari aurre egiteko

Nahiko altua. Presidentearen politika ekonomikoek azken 40 urteetan izan den emakumeen lanpostu-galerarik handiena eragin dute.

Altua. Presidenteak adierazi du, bere ustez, sexu-uztea dela biderik onena jaiotza kontrolatzeko eta HIESaren epidemiari aurre egiteko.

Larria. Presidenteak esan du emakumeek eskubideak dituztela: armadan sar daitezke, haiek sorrarazi ez dituzten gerretan borrokatu dezakete, pertsona errugabeak hil ditzakete.




**BENVENUTI ALLA BIENNALE FEMMINISTA!**

Frantziako pabiloiak emakume baten banakako erakusketa bat du ikusgai! Zer axola du 200 urtean hori gertatzen den lehen aldia bada!
Azkenean, emakume zuzendariak! Zer axola du prentsaurrekoetan "neska espainiarrak" direla esaten aurkezten badituzte!
Taldeka antolatutako erakusketetan, artisten %38 emakumeak dira! Bost axola hainbeste pabiloitan gizonen artelanak baizik jartzen ez badituzte ikusgai!
Sekula baino herrialde gehiago! Zer axola du Afrika –Maroko eta Egipto izan ezik– artean desagertuta badago!






## NON DAUDE VENEZIAKO EMAKUME ARTISTAK? GIZONEN AZPIAN

Mende eta mendeetan, hiri hau artista handien sehaska izan da: Marietta Robusti, Rosalba Carriera, Guilia Lama eta Isabella Piccini. Haiek, eta beste emakume askok, arrakasta lortu zuten emakumeek ia batere eskubiderik ez zuten garaian, eta arauak ezarri ziren emakumeak artearen mundutik urrun izateko. Non daude orain Veneziako emakume artistak? Azpian… biltegiratuta…… sotoan… Zoazte Veneziako museoetara eta esaiezue emakume gehiago nahi duzuela gainean!




## ASKA ITZAZUE EMAKUME ZUZENDARIAK!

2005ean egindako 200 film arrakastatsuenetatik, %7 baizik ez dute emakumeek zuzendu.
Emakume batek ere ez du irabazi zuzendaritza onenerako Oskar saria, eta 3 baizik ez dira hautagai izan.




## EMAKUME ARTISTA TURKIARREN ETORKIZUNA, GUERRILLA GIRLS-EI AGERTU ZIETEN MODUAN

Kontuz Bosforotik harantzagoko emakumeekin.
Ez izan museoak gogoan. Hobe duzu bankuetan konfiantza izatea.
Turkiako komisario bat betiko biziko da. Beste batzuk erbestean biziko dira.
Zorte ona izan dezazula itsas armadan.

**IZUA WASHINGTONGO ZABALDEGI NAZIONALEAN!**
**2006, THE WASHINGTON POST-ERAKO PROIEKTUA**

Milaka emakume hiriko museoetako sotoetan giltzapetuta!
Zergatik ezkutatzen ditu emakume artistak artearen mundu matxistak?
The National Gallery: mutilekin zoratuta?
Azken 10 urteetan, emakumeen banakako 3 erakusketa baizik ez; mutilenak, berriz, 68.
Edo zoratuta, besterik gabe?
Gaur egun, artista afroamerikar baten artelana baizik ez dago ikusgai.




**BRONX MUSEUM-EK BIDEGABE JOKATZEN GIZONEKIN!**

Making It Together (Elkarrekin lortzen) erakusketan ez dago gizon artistarik. Bronx Museumi eskatu behar diogu museo hauen tankerako jarrera har dezala: Estatu Batuetako museo nagusien bildumen eta erakusketen zerrenda, eta haietako bakoitzean dauden gizonen ehunekoak.
Arte maskulinoa, orain! Museoek milaka gizon artisten lanak eta oso emakume artista gutxirenak erakutsi beharko lituzkete. Beti egin duten moduan.




**MUSEOEK AMORE EMATEN DIETE FEMINISTA ERRADIKALEN NAHIEI!**

Geldiarazi joera politiko arriskutsu hau! Eska ezazue museoek garai bateko bidea har dezaten berriz, gizon artista mordoarekin (zuriekin), eta feminismoaren arrastorik gabe!
Arte maskulinoa, orain! Mende eta mendeetan, gizonek egindako artelanez gainezka egon dira museoak. Eutsi diezaiogun horri!






**MUTILAK, TOPA EGIN DIEZAIOGUN ARTE IRLANDARRARI (ET, ET, ET: NESKAK, HAIN BIZKOR EZ)**

Zuen museoetako bildumak gizonenak izan daitezela... (estatistika). Zuen banakako erakusketak matxistak izan daitezela… (estatistika). Zuen akademiak seminalak izan daitezela... (estatistika). Zuen arte -eskolak harenen modukoak izan daitezela... (estatistika). Zuen emakume artistak ezagunak izan daitezela, nahiz eta jendaurrean ia inoiz ez agertu… (estatistika)




**EZ NAIZ FEMINISTA, BAINA, HALA BANINTZ, HONETAZ KEXATUKO NINTZATEKE:**

• Irlandako museoak zoratuta daude mutilekin (museoetan dauden emakume urriei buruzko estatistikak).
• Ateratzeko prest, baina joateko tokirik ez (sari artistikoen erdia emakumeentzat izaten da, baina haien lana ez da inoiz ikusgai jartzen).
• Auzi akademikoa da (2 arte-eskola nagusietan irakasleen %69 eta %76 gizonak dira).
• Eta gustatzen zaie gizonak gainean egotea (Irlandako museo nazional guztietan gizonak daude zuzendaritzan).
• Egia jakina (arte-eskoletako ikasleen %71 emakumeak dira. Zergatik trebatu emakume artistak, lanbide-arloan aukerarik eskainiko ez bazaie?




**GUERRILLA GIRLS-EK MUSEOEI: BADA GARAIA SEXUA ALDATZEKO!**

Museo askok artista ospetsuen izenak dituzte fatxadetan idatzita, baina horietako bat ere ez da emakumezkoa. Barruan, egoera ez da askoz hobea:
• Chicagoko Art Instituteko arte modernoko aretoetan ikusgai dauden lanen %90 gizon artistenak dira.
• Arte garaikideko aretoetako lanen %82 gizon artistenak dira.
• 2010etik hona, MCAko (Arte Garaikidearen Museoko) banakako erakusketen %80 gizon artistei eskaini zaizkie. Bada garaia Chicagok ere egin dezan Parisen, Londresen, Madrilen eta Stockholmen egiten ari direna: emakumeek egindako arte gehiago biltzea eta erakustea.

## BAKEA ASALDATZEN




- Emakumeak inoiz ez du lortuko mendekotasunetik aske egotea | Manuren kode hindua
- Ehun emakumek ez dute barrabil baten balioa | Konfuzio
Naturak gure esklabo izateko sortu zituen emakumeak. Gure jabetzakoak dira | Napoleon
- Printzipio on batek ordena, argia eta gizona sortu zituen; eta printzipio gaizto batek kaosa, iluntasuna eta emakumeak sortu zituen | Pitagoras
- Emakumea akastuna eta zitala da... Gaizki egindako gizon bat da – Santo Tomas Akinokoa
- Bi motatako emakumeak daude: jainkosak eta lanpasak | Picasso
- Feminismoa sortu zen erakargarriak ez ziren emakumeak errazago sar zitezen jendarteak normaltzat jotzen duen horretara | Rush Limbaugh
- Gainean daramat emakumeen kontrako 25 urteko gorrotoaren zama. Ados. Sasikume hutsa naiz. Baina ez naiz errudun sentitzen | Roch Cote
- Neska ongi orekatua da burua hutsik eta jertsea beterik duena | Frank Sinatra
- Emakume baten bihotzera iristeko biderik bizkorrena bere barrunbe torazikoa da | kamiseta
- Feminista zara, hortaz; bai polita! | eranskailua autoaren kolpe-leungailuan
- Jarduera feministak ez du zerikusirik emakumeentzat eskubide-arloko berdintasuna eskatzearekin. Familiaren kontrako mugimendu sozialista bat da, eta emakumeak bultzatzen ditu senarrak bertan behera uztera, seme-alabak hiltzera, kapitalismoa suntsitzera eta lesbianak izatera | Pat Robertson
- Gorroto ditut feministak... Beren sortzaileari itzultzea erabaki dut | Marc Lepine
- Maite ninduzula uste nuen; orain, isuri odola, urdanga halakoa, isuri odola | Eminem
- Jendarte zentzudunagoa eta osasuntsuagoa izan gintezke, baldin eta aitortuko bagenu misoginia arazo larria eta limurtzailea dela, eta gizon askok emakumeekiko duten sentimendu bihurri hori, eta, horrekin batera, armak eskuratzeko duten erraztasun absurdua, nahasketa toxikoa dela, eta oso ondorio tragikoak dituela. | Bob Herbert, The New York Times




## MICHELE BACHMANN-EN USTEZ ERE, “GUZTIOK DITUGU ESKUBIDE ZIBIL BERBERAK”

Bozkatu EZ ezkontza-bereizkeriaren aldeko zuzenketari.




## MUNDUAK ARMA BERRI BAT BEHAR DU: ESTROGENO-BONBA

Bota iezaiezu super aginteei, eta mutil arduratsuek erortzen utziko dituzte beren armak, elkar besarkatuko dute, barkamena eskatuko dute, eta lanean hasiko dira giza eskubideen, hezkuntzaren, osasunaren eta munduko pobrezia desagertzearen alde. Bidali estrogeno-pilulak mundu osoko presidenteei, lehen ministroei, jeneralei, oligarkei eta kontseilari delegatuei.

# GUERRILLA GIRLS 1985–2013

*Guerilla Girls 1985-2013* erakusketak lehenbiziko aldiz bildu ditu AEBetako arte-kolektibo feminista honek 1985. urtean sortu zenetik orain arte egin dituen kartel eta proiektu gehienak. Kronologiako hurrenkeran antolatuta, kartelek hainbat dokumenturen ondoren daude ikusgai, kolektibo honen historiaren eta ekoizpen-prozesuen berri ematen duen “testuingurua” sortzeko. Kolektiboaren argitalpenak, kamisetak, gutunak, ekintzen eta erakusketen dokumentazioa, memorabilia eta prentsa-ebakinak biltzeaz gain, Amy Harrisonek 1992an egin zuen *Guerrillas in Our Midst* dokumentala, eta erakusketako komisarioak atzera begirako erakusketa honetarako berariaz egin dien *Interview 2013* bideo-elkarrizketa daude ikusgai.

Arte eta aktibismoaren elkargunean, *arte feministaren* mugimenduaren azken aldian izan den ahotsik nabarmenetako bat dira *Guerrilla Girls*. Mugimendua buru-belarri aritu da “artista jenioa” eta “maisulana” bezalako fikzioak zapuzteko lanetan, fikzio horiek sostengatzen duten artearen kontzeptua dagokion testuinguru sozial eta historikotik bereizita aurkezten delako, eta, XIX. mendean sortu arren, indarrean jarraitzen duelako gaur egun. Eta indarrean jarraitzen du, fikzio horiek lagungarriak direlako, ekoizleak duen sexuaren –eta arrazaren– arabera nagusi edo xehe gisa sailkatzen den arte-mota bat faltsutzeko prozesuak iraunarazteko. Are gehiago, arteari buruzko azterketa feministek agerian jarri dutenez, gizon artistek egindako arte nagusi horren bikaintasuna –gizonezkoei aitortzen baitzaie “jenialtasuna”– emakume artistek landutako arte xehearen bigarren mailako balioarekin kontrajartzean zehazten da. *Guerrilla Girls* artisten kolektiboa laurogeiko hamarkadaren erdialdean jarri zen abian, neoliberalismoaren goraldiarekin bat prozesu eta fikzio horiek lortzen ari ziren oldar berriari aurre egiteko. Izena eman gabe, kideak gorilen

mozorroen azpian ezkutatzen dira, eta hildako emakume ospetsuen izenak hartzen dituzte. Kolektiboak praktikaren alderdi politikoa hartzen du ardatz gisa, eta, aldi berean, gaur egungo jendarteetan emakumeek sistematikoki pairatzen duten ahanztura salatzen du.

*Guerrilla Girls-en* lana, haiek "*arte-munduaren kontzientzia*" deitzen dutena, inflexio-puntu bat da praktika artistiko feministetan, bi arrazoiren ondorioz.

Lehenengo arrazoiak artean desberdintasun sexuala ekoizteko eta erreproduzitzeko arazoei buruz duen ikuspegiarekin du zerikusia, beste norabide diskurtsibo bat hartzen baitu *arte feministan* garatzen ari ziren estrategien aurrean. Eta hori hala da, lehen aldiz, artean dagoen sexismoa sendotzen duten maila eta prozesu guztien ikuspegi orokor bat eskaintzen duelako, betiere, prozesu horiek instituzio eta arlo sozialekin dituzten loturak ahaztu gabe. Izan ere, kolektiboak erkaketa egin du emakumeek artean betetzen duten lekua, esate baterako, politikan edo enpresan betetzen duten tokiarekin. Era horretan, argi gezurtatu ahal izan du zabal hedatuta dagoen eta artea abangoardia sozialaren esparrua dela dioen sinismena, eta, gainera, agerian jarri ahal izan du arteak duen izaera kontserbadorea eta sexismoaren gotorleku gisa aurre egiteko duen jarrera. Kolektiboak gainditu nahi izan du artearen esparruan dagoen endogamia, eta, horrenbestez, emakumeak era berean baztertzen dituzten kultura-ekoizpeneko eremu mugakideak aztertu ditu, esate baterako, zinemagintza. Egia esan, borondate hori kolektiboaren izaera ekintzailearen ondorioa da, egitate honetan oinarritzen baitu bere praktika: artea produktu soziala eta historikoa da, eta bera ekoizteko baldintza materialak aztertzean izango dugu artearen funtzionamenduaren berri. Gaur egun artearen instituzioari zuzen aurre egiten dion jarrera hori babestean, aktibismo politikoan erruz erabili izan diren teknikez baliatu dira, adibidez, diseinu grafikoaz eta publizitateak erabilitako beste baliabide batzuez. Hala, sufragistek eta hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetako feministek normalean erabili zuten kartela izan da kolektiboak esperimentatzeko hartu duen euskarri nagusia. *Guerrilla Girls-en* kartel enblematikoak berehala bereiziko ditugu, estatistika, Estatuaren zientzia balio estetikoz hornitzen jolasten direlako. Estatistikaren mintzaira erabiltzen dute, emakumeek artearen esparruan eta beste esparru batzuetan betetzen duten tokia islatzeko, jendarte demokratikoek ustez lortu nahi dituzten helburuekin eta, bereziki, berdintasuna eskuratzeko xedearekin erkatzeko, eta, azken batean, agerian jartzeko promes horiek betetzeko orduan jendarte horiek izan duten porrot ikaragarria. Artearen esparrua arautzen duten kontzeptuen eta eragileen arteko harreman konplexua

lehen mailan jartzen dituzten kartel hauek, gainera, kolektiboaren jardueren oinarria dira, eta, besteak beste, barne hartzen dituzte leku publikoetan –adibidez, New Yorkeko arte-galerietako ateetan– kartelak itsastea, edota museoetan eta beste instituzio kultural eta sozial batzuetan era askotako ekintzak egitea. Ziurrena, 1989. urteko hau izango da *Guerrilla Girls-en* kartelik ezagunena: *Do women have to be naked to get into the Met. Museum? Less than 5% of the artists in contemporary art sections are women, but 85% of the nudes are female (Emakumeek biluzik egon behar al dute New Yorkeko METera sartu ahal izateko? Arte modernoari eskainitako ataletan agertzen diren artisten %5 baino gutxiago dira emakumeak, eta, hala ere, irudi biluzien %85ek erakusten du emakumeen gorputza).* Arin eta zabal hedatu zen, kolektiboaren gainerako lanak bezala, eta horri esker artearen esparruko feministen belaunaldi berri oso batek ikasi genuen harekin "kontatzen".

*Guerrilla Girls-en* lana *arte feministako* inflexio-puntutzat hartzeko dagoen bigarren arrazoiari dagokionez, laurogeiko hamarkadaren amaieran kolektiboak eskuratu zuen ospeak amaiera eman zion *arte feministaren* lehen aldi sendoari, hau da, joan den mendeko hirurogeiko hamarkadaren amaieran Atlantikoaren bi ertzetan abiarazi zen aldiari. AEBetan mugimendu feministaren "bigarren bolada" deitzen denaren barruan dago aldi hori, sufragismoaren ondoko boladan, eta Mendebaldeko Europan, feminista ilustratuei jarraiki, feminismoaren "hirugarren bolada" deitzen da. Bi tradizio politiko desberdinen ondoriozko desberdintasun horrek bi kontakizun desberdin sorrarazten ditu, garrantzi politikoko desberdintasunak dituzten kontakizunak. Gainera, urte haietako arte-esparruko AEBetako eszena feminista Estatu espainiarreko zirkulu artistiko eta feminista batzuetan hartzen ari den nagusitasunak maiz sorrarazten duen ilusioak nahasi egiten ditu AEBetako testuinguru artistikoa, soziala eta politikoa bertakoarekin. Desberdintasun horiek gorabehera, hirurogeiko hamarkadaren amaieratik laurogeiko hamarkadaren bukaerara arteko aldiaren ezaugarri nagusia da baterako agenda politiko berria proposatu zela bi kontinenteetako feminismorako, eta horrek barne hartzen zituela emakumeen sexu- eta ugaltze-eskubideen babesa –munduko toki gehienetan bete gabe dagoena oraindik ere–, eta behintzat sufragismoaren garaietara atzera egiten duen genealogia feministaren onarpena. Denboraldi horretan, berriz aztertu ziren oinordetzan jasotako jakintzak, emakumeen irudia desitxuratzen duten edota gizonezkoen mendekotasuna eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasun sozial iraingarriak iraunarazteko ideologikoki erabiltzen diren jakintzak. Bitartean, *arte feministak* era askotako norabideak eta gaiak landu zituen: falozentrikoa ez zen ikonografia eraikitzea, emakumeei buruzko mota guztietako estereotipoen eta

mitologien dekonstrukzioa egitea, begirada tresna ideologiko gisa teorizatzea, edota emakumeen eguneroko bizitzako kontuak *arte feministaren* arazo gisa barne hartzea, *arte feminista* horrek zalantzan jartzen baitu kultuaren eta herrikoiaren arteko dikotomia eta hedabideak eta publizitatea ikertzen baititu. *Guerrilla Girls-en* kartelak, argitalpenak eta jarduerak ibilbide feminista horren onarpena dira, ibilbide horretan oinarrituta eraikitzen dira, eta jakintza feminista aipatzen dute, zuzen ulertu ahal izateko behar den marko kontzeptuala delako. Bestalde, *Guerrilla Girls-en* lanak argi erakusten digu oraindik ez ditugula lortu mugimendu feministak hirurogeiko hamarkadaren amaieran proposatu zituen helburu politikoak, eta lehengoan jarraitzen du bete gabe dagoen agenda politiko horren alde borrokatzen. Ildo horretan, 1988ko kartel hau asmoen adierazpen irmoa da: *Until Feminism Has Achieved Its Goals, There Is No Post-Feminism (Feminismoak bere helburuak lortzen ez dituen bitartean, ez da post-feminismorik egongo)*.

Xabier Arakistain. Erakusketaren Komisarioa

ARTEA ETA KULTURA
ARTE Y CULTURA

Alhóndiga Bilbao

Kultura Bizi Den Tokia
Donde Vive la Cultura

www.alhondigabilbao.com

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK
MEDIOS COLABORADORES

EL CORREO

CADENA SER